

Herritarrendako Laguntza eta Herritarren Partaidetza



Udal-zerbitzuak

Herritarren Partaidetzako eta Teknologia Berrietako Alorra

✉ Udaletxea 4. sol. - 31001

☎ 948 420266

📠 948 420716
www.pamplona.es

🕒 Astelehenetik ostiralera
(08:30 - 14:30).

Zerbitzu nagusiak:

- Herritarrendako Laguntza Zerbitzua (HLZ):
 - * Telefono bidezko laguntza (010).
 - * Aurrez aurreko harrera (Casa Marceliano etxea).
 - * Harrera telematikoa (www.pamplona.es).
- Teknologia berriak:
 - * Aplikazio informatiko berriak abiaraztea, herritarrekiko harremanak hobetze aldera.
- Erregistro Orokorra eta erregistro osagarriak.
- Hiriko elkarte eta entitateen Zentroa.
- Herritarren entitateendako diru-laguntzen Deialdia:
 - * Auzo-elkarteak.
 - * Helduen eta adinekoen elkarteak, aisialdiaren esparruan.
 - * Beste erkidegoetako etxeak edo haien antzekoak, betiere herritarren partaidetza sustatzen badute.
- Komunikazio Zerbitzua:
 - * Prentsa-oharrak egitea.
 - * Udalaren web gunea mantentzeko lanak.
 - * Publizitatea kudeatzea.
- Zerbitzuen eta elkarten gidaliburuak zein herritar berrientzakoak egitea.
- Protokoloa:
 - * Ekitaldi instituzionalak antolatzea.
 - * Udaletxeko bisita gidatuak antolatzea.
- Kontsulta-kontseiluen eta partaidetza-foroen sustapena zein daudenen koordinazioa.

Herritarrendako Laguntza Zerbitzua

Aurrez Aurreko Harrera

- ✉ Merkatuko kalea, 7-9 - 31001
- 🕒 Astelehenetik ostiralera (08:30 - 14:30).

Zerbitzu nagusiak:

- Informazio orokorra.
- Erregistroa.
- Erroldako altak eta aldaketak egitea.
- Erroldako agiriak, ondasunen eta jabetzen gainekoak, jarduerari buruzkoak eta Udalari ordaindu gabeko zorrik ez izatearen gaineko agiriak ematea.
- Oharrak, kexak eta iradokizunak jasotzea.
- Ordainagiriaren kopiak (hiri-kontribuzioa, zirkulazioaren gaineko zerga, zerga bateratuak...).
- Erroldaren erregistroa, hauteskunde garaian
- Gainbalio-kuoten simulazioa.
- Ziurtagiriak egitea.

Telefono Bidezko Harrera

- ☎ 010
948 420100
(Iruñeaz kanpotik deituz gero)
- 🕒 Astelehenetik ostiralera:
08:00 - 19:00. Larunbatetan
09:30 - 13:30.
Uztailaren 15etik abuztuaren
31ra: Astelehenetik ostiralera
(08:00 - 15:00).
Sanferminetan: Egunero (09:30
- 13:30).

Zerbitzu nagusiak:

- Telefono bidezko zerbitzua, informazio orokorra emateko, udal-aferei buruz eta herritarren interesekoak izan daitezkeen beste hainbat gairen gainean.
- Erroldako agiriak, ondasunen eta jabetzen gainekoak, jarduerari buruzkoak eta Udalari ordaindu gabeko zorrik ez izatearen gaineko agiriak ematea.
- Ordainagiriaren kopiak (hiri-kontribuzioa, JEZ - edo Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga- eta zirkulazioaren gaineko zerga).
- Udal-inprimakiak igortzea.
- Oharrak, kexak eta iradokizunak jasotzea.
- Udalak antolatutako jardueretan izena ematea.

Harrera Telematikoa

www.pamplona.es

Zerbitzu nagusiak:

- Zirkulazio Zergaren autolikidazioak.
- Eremu publikoko edukiontzia kudeatzea.
- Zirkulazio Zergaren eta Zerga Bateratuen ordainagiriak ordaintzea.
- Erroldako agiriak, ondasunen eta jabetzen gainekoak, jardueri buruzkoak eta Udalari ordaindu gabeko zozirik ez izatearen gaineko agiriak ematea.
- Ordainagirien kopiak.
- Zirkulazio Zergaren ordainketa egunean izatearen gaineko ziurtagiriak.

Udal erregistroak

- ☺ Astelehenetik ostiralera (08:30 - 14:30).
Larunbatetan eta bulegoak itxita dauden egun baliodunetan, Udaletxeko ate nagusira joan beharko da, 12:00etatik 14:30era bitarte.

Zerbitzu nagusiak:

- Informazio orokorra.
- Agiriak Erregistroan sartu eta konpultsatzea.
- Erroldatzea: altak, bajak, aldaketak eta agiriak eta ziurtagiriak ematea.
- Errolda: Kontsulta, hauteskunde garaian, eta erreklamazioak.
- Bizileku- eta bizikidetasun-agiriak.
- Zirkulazioaren gaineko zergaren ziurtagiria.
- Aldizkako zergen ordainagiriaren kopia.
- Ezkontza zibilak eta izatezko bikoteak.
- Elkartein Erregistroa.

Oharra: Agiriak edozein erregistrotan aurkez daitezke, zein Alorrari zuzentzen zaizkion kontuan hartu gabe.

Erregistro Orokorra

✉ Merkatuko kalea 7-9 Behea. - 31001
☎ **948 420180**
📠 948 420227
www.pamplona.es

<p>Kultura Alorreko Erregistroa</p>	<p>✉ Descalzos k., 72 - 31001 ☎ 948 222008 www.pamplona.es</p>
<p>Garapen Iraunkorreko Alorreko Erregistroa</p>	<p>✉ San Saturnino k., 2 - 31001 ☎ 948 420400 www.pamplona.es</p>
<p>Herritarren Segurtasuneko Alorreko Erregistroa</p>	<p>✉ Iratxeko monasterioaren k., 2 - 31011 ☎ 948 420658 www.pamplona.es</p>
<p>Lehendakaritza Alorreko Erregistroa</p>	<p>✉ Zapateria k., 40 - 31001 ☎ 948 420511 www.pamplona.es</p>
<p>Hirigintza eta Etxebizitza Alorreko Erregistroa</p>	<p>✉ Armada etorbidea, 2-5. sol. - 31002 ☎ 948 420347 📠 948 420389 www.pamplona.es</p>
<p>Elkarteen Etxea ✉ San Gregorio k., 28 - 31001 ☎ 948 226326 @ c.asociaciones@pamplona.es ☹ Astelehenetik ostiralera (10:30 - 13:30 eta 17:00 - 22:00). Udan: Astelehenetik ostiralera (08:30 - 14:30). Astearte eta ostegunetan: 17:00 - 22:00. Uztailak 1 - 31: Itxita.</p>	<p>Zerbitzu nagusiak: - Bilera-aretoa. - Informatikako ekipoak, Interneterako sarbidearekin. - Kutxatilategiak, eskutitzak edo beste hainbat material gordetzeko. - Fotokopiagailua, koadernagailua eta tolesteko makina. - Aholkularitza-zerbitzua. - Neurrira egindako prestakuntza-ikastaroak. - Erakusketetarako panelak.</p>

Calderería kaleko Erabilera Anitzeko Aretoa

✉ Caldereria k., 11 - 31001

☎ 948 420266

☺ Eskaria egiteko ordutegia:

Astelehenetik ostiralera

(08:30 - 14:30).

Edukiera: 145 pertsona

Baldintzak: Hitzaldiak gai kulturaleri edota sozialei buruzkoak izan beharko dira (hitzaldi politikoak eta mitinak, hauteskunde-kanpainan, Hezkuntza Alorrak dituen ikastetxe publikoetan egingen dira). Eskaerak aurkeztea eta tasak Diruzaintzan ordaintzea gutxienez jarduera egin baino hamar egun lehenago gauzatu behar dira.

Eskabideak non aurkeztu: Udaleko erregistroetan.

Eskabideak aurkezteko jarraibideak:

1. 948 420266 telefono-zenbakira deitu, aretoa noizerako nahi eta egun eta ordu horietarako erreserbatzeko.
2. Honako agiri hauek aurkeztu Erregistroan, gutxienez, hamar egun lehenago:
 - Eskabide orokorra, bertan eskatzailearen izena eta helbidea zein hitzaldiaren gaia, eguna eta ordua adierazita.
 - NANen fotokopia (pertsona juridikoen kasuetan, ordezkapena egiaztatzen duen agiriren bat aurkeztu behar da, edo, bestela, eskabidea zigilatuta).
 - Hitzaldiaren edo jardueraren curriculum (memoria laburra, txostena, liburuxka eta abar).
3. Hamar egun lehenago, tasak Diruzaintzan ordaindu direla egiaztatzen duen agiria kopia aurkeztu, eskabidea bideratu behar duen unitatean.

Nafarroako Gobernuko zerbitzuak

Argibide eta Erregistro Bulegoa

- ✉ Carlos III.aren etorb., 2 - 31002
- ☎ **848 427100**
848 427000 (telefonogunea)
- 🏠 848 427125
www.navarra.es
- 🕒 Astelehenetik ostiralera
(08:00 - 14:30).

Zerbitzu nagusiak:

- Nafarroako Gobernuari buruzko informazio orokorra.
- Lan-eskaintza publikoa.
- Diru-laguntzak, laguntzak eta beka.
- Nafarroako Gobernuan entregatu beharreko agirien konpultsa eta erregistroa.

012 Infolocal - Telefono Bidezko Informazio Zerbitzua

- ☎ **012**
948 217012
(Iruñeaz kanpotik deituz gero)
- @ 012@infolocal.org
www.autobusesdenavarra.com
(Nafarroko herrien arteko joan-etorriari buruzko argibideak eta txartelen salmenta)
- 🕒 Astelehenetik ostiralera:
08:00 - 19:00.
Larunbatetan:
09:30 - 13:30.

Zerbitzu nagusiak:

- Zerbitzuari atxikita dauden herrietako udal-informazioa (erakundeak, aisialdi-agendak, izapideak, deialdiak eta abar), eta Udalez besteko informazioa.
- Udal-izapideak kudeatzea.
- Oharrak, kexak eta iradokizunak kudeatzea.
- Telefono bidezko argibideak eta txartelen salmenta, Nafarroako hiriarteko joan-etorrietarako.
- Txartelak saltzeko leihatila bakarraren kudeaketa, Iruñeko autobus-geltokian.
- Nafarroko herrien arteko joan-etorriari buruzko argibideak emateko eta txartelak saltzeko web gunearen kudeaketa (www.autobusesdenavarra.com).

Herritarrendako laguntza

Zer ordutegi dute udal-bulegoek?

Udal-alorretako jendaurreko ordutegia astelehenetik ostiralera da, 8:30etik 14:30era bitartekoa. Erregistro Orokorrek larunbatetan eta bulegoak itxita dauden egun baliodunetan ere ematen du zerbitzua (bertara jotzeko, Udaletxeko ate nagusira joan behar da, 12:00etatik 14:30era bitarte).

Herritarrei laguntza emateko telefono zerbitzua (010) astelehenetik ostiralera dago zabalik, 08:00etatik 19:00etara, eta larunbatetan, 09:30etik 13:30era (udako ordutegia: astelehenetik ostiralera, 15:00ak arte).

Udaltzaingoak laguntza emateko telefono zerbitzua du, 24 ordukoa (092).

Errolda eta agiriak

Zer egin behar dut, nire etxe berrian erroldatzeko?

Honako agiriak aurkeztu behar dituzu, Herritarrendako Laguntza Zerbitzuan (Merkatuko k., 7-9):

- NANen, atzerritar txartelaren, pasaportearen edo gida-baimenaren fotokopia (famili liburua, adingabeen kasuan).

- Zein etxetan errolda egin nahi den eta haren okupazioa justifikatzen duen agiria aurkeztu edo fotokopia eman (etxebizitzaren jabe izanez gero, eskriturak; bestela, alokairu-kontratua, argiaren kontratua, telefonoarena, urarena, etab. Edo, beste norbaiten etxean biziz gero, jabearen edo helbidean erroldatutako pertsonaren baimena, pertsona horren nor-tasun agiriaren fotokopiarekin batera).

Herritarrendako Laguntza Zerbitzua

☎ 010

☎ 092

Herritarrendako Laguntza Zerbitzua

☎ 948 420126

- Adingabeen kasuan, adingabearen ordezkariak (gurasoak, tutoreak edo haren zaintza eta babesa duena) sinatutako baimena aurkeztu beharko dute, idatziz, eta nortasun agiriaren fotokopiak.

Nola lor dezaket errolda-ziurtagiri bat?

010 zenbakira deituz, edo Udalaren web ogunearen bitartez (www.pamplona.es). Posta bidez bidaliko dizute, 24 ordutan, Erroldan duzun helbidera.

Agiria berehala behar baduzu, Herritarrendako Laguntza Zerbitzuan eska dezakezu (Merkatuko k., 7-9), NANA aurkeztuz.

Zein dira NAN eta pasaporteen bulegoko telefonoa eta helbidea?

NAN eta pasaportea bideratzeko bulegoa Bergamín kalean dago, 3 zenbakian. Hitzordua eskatzeko ordutegia: astelehenetik ostiralera, 09:00etatik 14:00etara. Jendaurreko ordutegia: astelehenetik ostegunera, 09:00etatik 14:00ak arte eta 15:30etik 17:30era.

Erroldako datu bat aldatu nahi dut.

Zure datu pertsonalak (izen-deiturak, jaiotze-data, NAN zenbakia, jaiolekua, nazionalitatea eta titulazio akademikoa) aldatzeko eska dezakezu Herritarrendako Laguntza Zerbitzuan (Merkatuko k., 7-9).

Herritarrendako Laguntza Zerbitzua

☎ 948 420126

☎ 010

www.pamplona.es

NAN eta pasaporteen bulegoak

☎ 948 231769

Herritarrendako Laguntza Zerbitzua

☎ 948 420426

Errolda eta hauteskundeak

Hauteskudeetan botoa emateko erroldan izena emana dudan jakin dezaket?

Hauteskunde garaian, botoa emateko lekuei buruzko informazioa emanen dizugu, Herritarrendako Laguntza Zerbitzuan (Merkatuko k., 7-9).

Lankidetzaren, entitateekin

Boluntario moduan laguntza eman nahi dut. Zer egin behar dut?

Zer boluntario-lanetan aritu nahi eta nora jo behar duzun esanen dizugu.

Gazte boluntarioen lana Boluntarioendako Argibide Bulegoak kudeatzen du, Gaztediaren Etxean.

Gure entitateak interesa du nazioarteko kooperazioan. Non jaso dezakegu informazioa?

Garapenaren aldeko Lankidetzako Programak (Tutera k., 4-1. ezk.) kudeatzen du Udalak garapenerako bidean diren herrialdeei esleitzen dien aurrekontua, eta bertan nazioarteko lankidetzari buruzko argibideak ematen dituzte.

Zein baliabide daude elkarteetan eskura?

Elkarteen Etxean (San Gregorio k., 28), bilera-aretoa, ekipamendu informatikoak, kutxatilategiak eta bitarteko teknikoak (fotokopiagailua, koadernagailua, tolesteko makina...) erabil ditzakete; gainera, banan-banako aholkularitza eta neurri egindako ikastaroak jasotzeko eta erakusketarako panelak erabiltzeko aukera izanen dute.

Herritarrendako Laguntza Zerbitzua

☎ 948 420426

☎ 010

Gaztediaren Etxea. Boluntarioendako Argibide Bulegoa

☎ 948 233512

☎ 010

Garapenaren aldeko Lankidetzaren Programa

☎ 948 222671

Elkarteen Etxea

☎ 948 226326

Nola eratzten da elkarte bat?

Lehenik eta behin, eraketa-akta eta estatutuak egin behar dira. Horretarako, Nafarroako Gobernuko Lehendakari-tza Departamentuko Elkarte Bulegora (Erletokietak, 2) jo behar da, honako ordutegian: astelehenetik ostiralera, 08:30etik 14:30era. Bertan, ondoko agiriak emanen dizkizute:

- Akten eta estatutuen eredua.
- Eskabide orokorra eta ordainketa-gutuna.
- Gainerako agiriak aipatzen dituen inprimakia.

Agiriak Elkarte Bulegoran ere eskatzen ahal dituzue (San Gregorio k., 28).

Bigarrenik, Elkarte Erregistroan izena eman beharko duzue, eta honako agiriak aurkeztu:

- Elkarte eratzeko aktaren bi ale.
- Elkartearen estatutuen bi ale.
- Zuzendaritza-batzordea osatzen duten kideen zerrenda.
- Elkartearen sustatzaileen nortasun agiria.
- Eskabidea.
- Ordainketa-gutuna (elkartera Nafarroakoa edo estatu mailakoa den kontuan hartuz).

Hirugarrenik, IFZ eskatu behar da, Ogasun Departamentuan (Carlos III.aren etorb., 4) Bertan, aipatu agirien kopia bana aurkeztu beharko duzue.

Nola eman daiteke izena, Elkarte Bulegoran?

Irabazi-asmorik gabeko elkarteek, baldin eta legez eraturik badaude eta egoitza Iruñean badute, Udaleko edozein erregistrotan egin dezakete eskaria. Inskripzioa borondatezkoa da.

Elkarte Bulegora

☎ 948 226326

Nafarroako Gobernuko Elkarte Bulegora.

☎ 948 426645

Nafarroako Gobernuko Ogasun Departamentua

☎ 848 427051

☎ 848 423374

Eskatutako agiriak:

- Elkartearen estatutuak.
- Elkarteen Erregistrokoko inskripzio-zenbakia.
- Zuzendaritza karguak dituzten pertsonen izen-deiturak eta NAN edo haiei dagozkien egiaztagiri ofiziala eta kasuan kasuko kargurako zein bileratan aukeratu eta horren ziurtagiria.
- Elkartearen egoitza (helbidea).
- Urtean urteko aurrekontu orekatua.
- Elkartekideen kopurua egiaztatzeko agiria, zeina urtero berritu beharko baita.

Aldaketarik izanez gero, horiek erregistroan jakinarazi beharko dira, hilabeteko epean. Betebehar horiek ez bete-
tzeak elkarteari erregistroan baja ematea ekarriko du.

Estatistika-datuak

Iruñeko biztanleei buruzko datuak kontsultatu behar ditut.

Soziologia Departamentuan (Descalzos k., 72), hiriari, bertako barrutiei eta bestelako lurralde-banaketa txikiagoei buruzko estatistika-datuak jasotzen dituen agirien funtsa kontsultatzen ahalko duzu. Gainera, Udalaren web gunea ere kontsultatzen ahalko duzu.

Agiriak

Iruñeari buruzko liburuak edota argitalpenak kontsultatu edo erosi nahi ditut.

Kultura Alorrean (Descalzos k., 72) Udalak argitaratutako liburu eta argitalpenei buruzko informazioa eta orientazioak emanen dizkizugu.

Udaleko erregistroak

Soziologia Departamentua

☎ 948 222418
www.pamplona.es

Kultura Alorra

☎ 948 222008

Udal-ordenantzak kontsultatu nahi ditut.

Alorretako bulegoetan eskatu edo Udalaren web gunean kontsultatu dezakezu.

Izatezko bikoteak eta ezkontza zibilak

Izatezko bikotea osatzen dugu, eta erregistroan izena eman nahi dugu.

Herritarrendako Laguntza Zerbitzura (Merkatuko k., 7-9) etorri beharko duzue, nortasun agiriekin, eta zinpeko aitortpena sinatu beharko duzue, ezkondu gabeko bikote egonkorren beste edozein erregistrotan izena eman ez duzuela adieraziz. Gutxienez bikotekideetako batek Iruñean erroldaturik egon eta bertan bizi behar du.

Ezkontza zibila egin nahi dugu.

Justizia Jauregiko Erregistro Zibilean (San Roke k., 4) espedientea eskatu behar duzue, honako ordutegian: astelehenetik ostiralera, 07:30etik 15:00etara, eta larunbatean, 09:00etatik 14:00etara. Espedientea Herritarrendako Laguntza Zerbitzuan aurkeztu (Merkatuko k., 7-9) eta eguna eta ordua eskatu beharko duzue.

Deskargu-orrien aurkezpena

Non aurkez dezaket deskargu-orri bat?

Udalaren trafiko isun batengatik alegazio bat edo deskargu-orri bat aurkeztu nahi baduzu, jakinarazpena edo salaketa jaso eta 15 egun balioduneko epean egin beharko duzu. Horretarako, instantzia orokorra edo deskargu-orriaren idazki-eredua (izapidea egiten duen unitatean bertan emanen ditzute), edo beste edozein idazki, aurkeztu beharko duzu.

Udal Alorrak

www.pamplona.es

Herritarrendako Laguntza Zerbitzua

☎ 948 420126

Justizia Jauregia Erregistro Zibila

☎ 848 424000

Herritarrendako Laguntza Zerbitzua

☎ 948 420126

Herritarren Segurtasuneko Alorra

☎ 948 420619

Herritarrendako Laguntza Zerbitzua

☎ 948 420126

Alegazioa Mugikortasun eta Herritarren Segurtasuneko Alorean (Iratzeko monasterioaren k., 2) edo Herritarrendako Laguntza Zerbitzuan (Merkatuaren k., 7-9) aurkez dezakezu.

Auzotarren arteko harremanak

Nora jo dezaket, auzo-komunitatearekin lotutako arazo bati buruzko informazioa jasotzeko?

Etxebizitzari buruzko Informazio Zerbitzura (Pio XII.aren etorb., 33-Ezkerreko eskailera, A bulegoa, solairuartea). Donako zerbitzua da, Nafarroako Gobernuak diruz lagundutakoa. Hitzordua hartzeko telefonoa honakoa da: 902 117912. Eta ordutegia, astelehenetik ostiralera, 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 17:00etara.

Iradokizunak eta laguntza

Udalari bere eskumeneko gai bati buruz dudan iritzia helarazi nahi diot.

Jakinarazpen, kexu edo iradokizunen bat helarazi nahi baduzu, jar zaitez gurekin harremanetan 010 telefonora deituta edo posta elektronikoa erabiliz (sugerencias@pamplona.es).

Udaletxea ikusteko bisita gidatuak

Ba al dago Udaletxea bisitatzeko aukerarik?

Protokolo Zerbitzuan taldeentzako bisita gidatuak antolatzen dituzte. Bisitek 45 minutu inguru irauten dute. Interesik izanez gero, deitu 948 420123 telefonora.

Etxebizitzari buruzko Informazio Zerbitzua

☎ 902 117912

☎ 010

www.pamplona.es

Protokolo Zerbitzua

☎ 948 420128